




Euskadi %1,8 hazi zen bigarren hiruhilekoan

EAEko ekonomiaren hazkundera Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

Eustatek berriki argitaratutako kontu ekonomikoen arabera, **EAEko BPG %1,8 hazi zen 2024ko bigarren hiruhilekoan, hau da, aurreko hiruhilekoan baino hiru hamarren gutxiago**. Halaber, enpleguak bilakaera positiboarekin jarraitu zuen, eta %1,9ko hazkundera jaso zuen aurreko urteko aldi beraren aldean.

Gaualdiek gora egin dute turismo ostatueta

Gaualdiak turismo ostatueta Urte bakoitzeko abuztua. Milakoak




Iturria: Eustat.

Abuztuan, ostatu turistikoetako gaualdiak %2,5 gehitu ziren urte batetik bestera. Zehazki, 1.160.000 gaualdi baino gehiago erregistratu ziren, serie historiko osoko erregistratorik handiena. Bilakaera positibo hori apartamentu turistikoaren erregistroek (%16,1), aterpetxeek (%7,5) eta hotelek (%1,6) lortu zuten; landa ostatuak, ordea, %3,7 egin zuten behera.



Industriako prezioek behera egiten jarraitzen dute

Industria prezioen indizea
Urte arteko aldakuntza tasa




Iturria: Eustat.

EAEko IPRI indizea %5,5 jaitsi zen abuztuan, aurreko urteko hil beraren aldean. Hala, adierazle horrek balio negatiboak jaso ditu 2023ko apiriletik, eta energia (-%24,2) da, beste behin ere, merkatze horren erantzule nagusia.

Txikizkako merkataritza %4,8 gehitu zen Euskadin

Txikizkako merkataritza EAEn
Urte bakoitzeko abuztua. Indizea



Iturria: INE.

Abuztuan, EAEko txikizkako merkataritzaren salmentak %4,8 handitu ziren, aurreko urteko aldi beraren aldean. Horrela, aurreko hilean erregistratutako balio positiboak berretsi dira. Era berean, okupazioak hazkunde positiboak izan zituen beste hilabete batez (%1,6).